



EGO

20
23



NEGUKO TOPAKETA - ENCUENTRO DE INVIERNO

INDAR BIZIA!

¡PURA INTENSIDAD!

KONTZERTUAK / CONCIERTOS

30.12.23

Leidor Antzokia
TOLOSA

02.01.24

Teatro Victoria
Eugenia Antzokia
DONOSTIA -
SAN SEBASTIÁN

03.01.24

Teatro Principal
Antzokia
VITORIA-GASTEIZ

04.01.24

Palacio Euskalduna
Jauregia
BILBAO



SARRERA

EGOk beste urte batez eusten dio fidel bere Gabonetako topaketari. Oraingoan gure atriletan **Rossiniren Obertura La gazza ladra** eta **Brahmsen 4. sinfonia** izango ditugu. Zalantzarik gabe, bi jenio hauen arima ongien erakusten duten partituretako batzuk.

Energia, umorea, lirismoa, drama... kontzertu honen osagai izango dira eta Obeturari hasiera ematen dioten danbor arradek **entretanimenduzko eta musika oneko gualdia iragartzen digute.**

Rubén Gimeno

Zuzendari artistikoa

INTRO

Un año mas la **EGO** se presenta fiel a su cita con su encuentro navideño. En esta ocasión contaremos en nuestros atriles con la **Obertura La gazza ladra de Rossini** y la **Sinfonía nº4 de Brahms**, sin duda unas de las composiciones que mejor representan el espíritu de estos dos genios.

Energía, humor, lirismo, drama... ingredientes que encontraremos en este concierto y que a través de los redobles de caja que dan comienzo a la Obertura **nos auguran una buena velada de entretenimiento y buena música.**

Rubén Gimeno

Director artístico

LA GAZZA LADRA (1817)

Gioachino Rossini

La gazza edo mika txoriak mendeetan zehar izan du lapur ospea, metalezko objektuak "ostu" eta bere kabian ezkutatzeke joeragatik. Portaera horren eraginez, **Gioachino Rossini** konpositoreak opera bat idatzi zuen, zeinaren ustekabeko amaieran gazza delakoak, txintik esan gabe ere, zerikusi handia duen.

Agian ez duzu oraintxe bertan gogoan izango, baina "**La gazza ladra**" obraren **obertura iruditeria kolektiboan iltzatuta dagoela** baieztatu dezakegu. Lehen danbor hotsak entzun orduko, iraganeko oneak berriz bizitzen ari zarela sentituko duzu: **zure adina edozein izanda ere, ezinezkoa baita zure existentzia justifikatzea**, zure bizitzako uneren batean obertura honen **pasarte laburren bat entzun gabe**.

Obertura hau maisulan hauetakoren batean entzungo zenuen agian: **Laranja mekanikoa**, **Once upon a time in America** edo **Prizzi's Honor**. Litekeena da hari buruz irakurri izana **The Wind-Up Bird Chronicle** liburuan, obertura honen melodiak berebiziko garrantzia baitu nobelan, edo **Tintinen Abenturak** bildumako **Castafioreren bitxiak** liburuan, **Bob Belaki** marrazki bizidunetan...

La gazza ladra melodrama edo opera erdi-serioa da. Bi ekitalditan banatuta dago eta libretoa Giovanni Gherardini eta Louis-Charles Caigniez egileena da, nahiz eta obra unibertaski ezagun egiten duena bere obertura bikaina izan, danbor arraden erabileragatik.

Txoritxo batek esan digunaren arabera, **Gioachino Rossini** konpositoreak oso azkar idazten zituen bere obrak eta La gazza ladraren obertura ere berehala sortu omen zuen. Diotenez, estreinaldiaren bezpera egunean konpositorea gela batean giltzapetu zuten, obertura konposatzen buka zezan. Bukatu zuenean, **Rossini** leiho batetik jaurti zizkien bere paperak kopiatzaileei, eta haiek bukatu zituzten orkestrari zegozkion zatiak.

Laster batean argiak itzaliko dira, danbor arradak entzungo dira, eta guztiok hegaldatuko gara La gazza ladrarekin batera.

LA GAZZA LADRA (1817)

Gioachino Rossini

La gazza o la urraca, ha recibido durante siglos el apelativo de ladrona que viene dado por su tendencia a “robar” los objetos metálicos para esconderlos en su nido. Una conducta que llevó a **Gioachino Rossini** a componer una ópera en cuyo inesperado desenlace, la gazza, aunque no dice ni pío, tiene mucho que ver.

Puede que ahora mismo no te suene, pero podemos afirmar que la obertura “**La gazza ladra**” forma parte del imaginario colectivo. Nada más sonar los primeros redobles, sentirás que estás reviviendo momentos pasados, porque **tengas la edad que tengas, es prácticamente imposible justificar tu existencia sin haber escuchado un breve fragmento** de esta magistral obertura en algún momento de tu vida.

Es posible que hayas escuchado esta obertura en obras maestras como **La naranja mecánica**, **Érase una vez en América** o **El honor de los Prizzi**. También es probable que hayas leído sobre ella en **Crónica del pájaro que da cuerda al mundo**, donde la melodía de este prólogo juega un papel crucial en la novela, o en **Las Joyas de la Castafiore** de **Las Aventuras de Tintín**, o a través de los dibujos animados de **Bob Esponja**...

La gazza Ladra es un melodrama o una ópera semiseria. Está dividida en dos actos y el libreto es de **Giovanni Gherardini** y **Louis-Charles Caigniez** aunque la obra es universalmente conocida por su excelente obertura donde destaca su uso de redoblantes.

Nos dice un pajarito que **Gioachino Rossini era muy veloz en la composición de sus obras** y que la composición de esta obertura de **La gazza ladra** se fraguó de la misma manera. Se dice que encerraron al compositor en una habitación el día anterior al estreno para que terminara de componer la pieza y una vez compuesta, **Rossini** lanzó los papeles al vuelo a través de una ventana a los copiadores, quienes se encargaron de completar las partes orquestales.

En breve se apagarán las luces, sonarán los redobles y nos pondremos todos a volar junto a La gazza ladra.

4. SINFONIA MI MINORREAN, OP. 98 (1885) Johannes Brahms

Kontzertu honetako bigarren obra eta plater nagusia **Johannes Brahms (1833-1897)** maisu alemaniarrek konposatu zuen azken sinfonia da.

Mozarten eragin sakonarekin, **Brahms XIX. mendearen bigarren erdiko musika eszena eferbeszenteenaren erdian kokatu dezakegun konpositorea da.** Erroman-tikoen Guda izendatu izan denaren protagonistetako bat izan zen. **Brahms** eta **Clara Schumann** bere lagun minak, pianista ezaguna eta **Robert Schumann** konpositorearen emaztea, korrante kontserbadorea lideratzen zuten. Kontrako aldean progresista erradikalak zeuden, **Franz Liszt** eta **Richard Wagner** buru zituztela. Bi bandoek zuten heroi espiritual **Ludwig van Beethoven** baina ikuspegi oso ezberdinak zituzten maisu handiarekiko. Lehenek garaitu ezin daitekeen gailur bezala ikusten zuten. Bigarrenek, berriz, musika berriaren hasiera bezala zekusaten.

Egungo flamenkoaren munduarekin alderatu genezake. **Camarón de la Isla** erreferentzia bezala hartuta, korrante ezberdinetako musikariak topa ditzakegu: alde batetik **Miguel Poveda** eta bestetik **El Niño de Elche**, adibidez.

Sinfoniara itzulita, konpositoreagandik gertukoenek ez zioten laudorio handirik bota obrari, eta gaitzespenen bat edo beste jaso zuen. Guzti horrek eraginda **Brahms** konpositoreak mesfidantza sentitu zuen estreinaldirako denbora gutxi geratzen zenean. Zorionez, ordea, obra honek ez zuen izan aurreko lan batzuek izandako zori bera. **4. sinfoniak** harrera bikaina izan zuen eta **Requiem alemaniarrekin** batera konpositorearen magnum opus izatera igaro zen.

Bere lanean zuen **zorrotzasun eta perfekzionismoagatik**, **Brahmsek** bere partiturretako asko suntsitu zituen, bere talenturako mespretxagarriak zirelakoan. Gorde diren konposizioetako askorekin urteak igaro zituen ukitu eta ñabardurak lantzen, amaitutzat jo zituen arte.

Azkenik, eta konpositore perfekzionista eta bikain honek zuen izaeraren eta, zergatik ez esan, umorearen erakusgarri, inor epel utziko ez duen aipu hau erakutsi nahi dizuegu:

“Iraindu ez dudan inor baldin badago, barka nazala erregutzen diot”

Johannes Brahms

SINFONÍA Nº4 EN MI MENOR, OP. 98 (1885) Johannes Brahms

La segunda obra y plato fuerte de este concierto, es nada más y nada menos que la última sinfonía que compuso el maestro alemán **Johannes Brahms (1833-1897)**.

Profundamente influenciado por Mozart, **Brahms fue un compositor que podríamos ubicar en el centro de la escena musical más efervescente de la segunda mitad del siglo XIX**, siendo uno de los protagonistas de lo que se llamó la Guerra de los románticos. Donde por un lado el propio **Brahms** junto con su íntima amiga **Clara Schumann**, reconocida pianista y esposa de **Robert Schumann**, lideraban la corriente más conservadora frente a sus oponentes, los progresistas radicales liderados por **Franz Liszt** y **Richard Wagner**. Ambos bandos erigieron a **Ludwig van Beethoven** como su héroe espiritual pero desde ángulos muy distintos. Los primeros, situándolo como una cumbre insuperable y los segundos, como comienzo de una nueva música.

Lo podríamos parangonar con el mundo del flamenco actual donde tomando a **Camarón de la Isla** como referencia, se generan corrientes distintas como la que sigue **Miguel Poveda** por un lado y **El niño de Elche** por otro.

Volviendo a la sinfonía, por parte del círculo más cercano al compositor no la recibieron precisamente con grandes halagos y obtuvo alguna que otra desaprobación. Todo ello provocó que **Brahms** tuviese ciertos recelos poco antes del estreno pero por fortuna, esta obra no corrió la suerte de algunos de sus trabajos anteriores y la **Sinfonía nº4** obtuvo una gran acogida llegando a ser considerada, junto a **Un réquiem alemán**, la magnum opus del compositor.

Meticuloso y perfeccionista a más no poder, **Brahms** destruyó muchas de sus partituras por considerarlas indignas de su talento y gran parte de las composiciones que se conservan le llevaron unos cuantos años de retoques y matizaciones hasta darlas por finalizadas.

Por último y como muestra del tremendo carácter y por qué no decirlo, del sentido del humor que tenía este perfeccionista y genial compositor, os mostramos una cita que no os dejará indiferentes:

“Si hay alguien a quien no haya insultado, le ruego que me perdone”

Johannes Brahms



GIOACHINO ROSSINI (1792 – 1868)

La gazza ladra. Obertura [10']

JOHANNES BRAHMS (1833 – 1897)

Sinfonía nº4 en mi menor, op. 98 [33´]

I. Allegro non troppo

II. Andante moderato

III. Allegro giocoso

IV. Allegro energico e passionato

EGO (Euskal Herriko Gazte Orkestra)

Unai Urrecho, zuzendari gonbidatua / director invitado



FUNDATZAILEA / FUNDADOR



PARTZUERRAK / PATRONOS

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

bbk 

 **kutxa**
FUNDAZIOA